

Kontzientzia har dezagun, edo kito giza eskubideak

2014ko abenduaren 10a – Giza Eskubideen Eguna

Ez da giza eskubiderik kontzientziatorik gabe, ez bagara aldarrietatik egitateetara pasatzen. Ez da giza eskubiderik izanen eskubide horiek eraginkorrak izateko oztopoak eta erreparaoak desagerrarazten ez baditugu. Hitzak besterik ez dira izanen, errealitateak husturiko hitzak, beren jatorrizko izpirituaz desjabeturiko hitzak.

Begibistan dira eremu guztietan gertatzen diren erresistentziak eta giza eskubideen urratzeak, baita hirietan ere. Horregatik, giza eskubideen subjektu eta objektu garenok –gizakiok- era aktibo eta positiboan jardun behar dugu eskubide horien kontzientziazioan. Horixe da Giza Eskubideen egun honetan idazten dugun artikulu honen helburua. Eskubide horiek etengabe hedatu eta aldarrikatu behar dira, konbentzitu beharrez, adimenez. Eskubideen eragileontzat, gauden instantzia edo erakundetan gaudela ere, ezinbesteko betebeharra da hori.

Udal mailako sindiko zein herritarren defendatzaile garenok, eragile juridikoak gara, eta xede hori lortzeko konpromisoa eta betebeharra duten erakundeetako bat gara. Gure jarduera eremua hiriak dira, eta hiri horietako biztanleak dira geure hirietan egikaritzen, errespetatzen eta defendatzen diren eskubideen arrazoia.

Askatasuna, justizia eta bakea dira giza eskubide oren oinarrizko egoera soziopolitikoak. Gizateriak ikasia du –kostu negargarria ordainduz, haatik-demokraziako egoera hau mantentzea, injustizia, gatazka, errepresio eta beldurraren orde, belaunaldi askoren kontzientziazio eta lan eskergaren ondorioa izan dela. Eta belaunaldi horiei esker, denontzat izugarrizko balio estrategikoa duten hainbat jarrera pertsonal eta kolektibo mamitu dira.

Jarrera eta kokapen horiek –pertsonal izan naiz kolektibo edo instituzionalak– denbora luzez jorratuak izan dira, ikuspegi sozialetik preziatuen diren teknologiak erabiliz: kultura eta hezkuntza, alegia.

Mendetako lan neketsu honen fruitua da gure norbanakoaren nahiz gizartearen kontzientzian sustraitu dugun ideia bat, sinesmen bat, pentsamendu bat; hau da, pertsona bere horretan errespetatua izan behar dela, eta horretan datzala gu guztion duintasuna. Duintasuna da gainerako eskubide guztien benetazko zergaitia.

Eta hala ere, 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Deklarazioraino ez genuen modu solemnean aldarrikatu gu guztiok duin garela, eta elkarri duintasuna zor diogula. Pertsona garelako gara duintasunaren hartzekodun eta zordun, baldintza sinple baina aparteko horrexegatik. Modu positibo eta etengabe batean elkar errekonozitzean datza teknologiaren aurrerapena; errespetuan, gizaki, giza-talde eta komunitate guzti-guztienganako errespetu sakon eta aktiboan, beren bereiztasun eta kulturen errespetuaz batera. Begiramena da pertsona eta giza-taldeak duintzeko bidea, eta, aldi berean, printzipio horren arabera diharduena pertsona duintzeko bidea. Ulertu dugu azkenik; elkar errespetatuz, elkarri duintasuna onartuz, eta ezbeharrak ezbehar, denok gara irabazle: “win-win”.

Justizia, askatasuna eta bakea pertsona izatearen mamia eta kausa jasotzen dituen triangeluaren hiru aldeak dira, ikuspegi politiko, sozial zein juridikotik. Esentzia hori duintasuna da. Duintasuna *per se*.

Gauza bera gertatzen da hirietan. Hiriok gizatiarrago izango dira, herritarrentzako duinagoak, herritarren eskubideak eta betebeharrak askatasunez, justiziaz eta bakean egikaritzen diren heinean.

Hemen eta orain, sindikook, kontzientziazio lan etengabea egiten dugu baita ere, udal bakoitzeko errealitatera egokiturik, herritarrak direlako, eta ez beste inor, bakearen benetako eraikitzaileak. Hona hemen gizartearen erantzukizuna. Herritarrak, bai, bakearen eraikitzaileak dira pertsona duinak direnez gero, familiako kide, auzokideen elkartekoak, eskolako guraso elkarte bateko kide diren aldetik, auzoko kontseilu batekoak, festa batzordekoak, kolektibo erreibindikatzailerik batekoak, alderdi politiko batekoak edota plataforma batekoak. Herritarren kalitatea eguneko hogeita lau orduz gauzatzen da, urteko 365 egunetan, askatasunez, justiziaz eta bakean biziz. Irakurle estimatua: bizi zaren gizartea duina izan dadin ezinbestekoa da zure kontzientzia. Ez ezazu kanpora begira, udaletxera edo parlamentura; lehenik eta behin begira iezaiozu zeure buruari. Hartzazu kontzientzia eta ekin. Ekin orain. Bestela ez da giza eskubiderik izanen, ez eta guztiontzako onurarik.